## (6) PURUAREN URREZKO ERAZTUNA

–Harrigarria! –argitu zuen Felixek–. X jauna seiluzalea da, orduan.

–Neronek ikusi dut –Idoiak–, eta, gainera, hau ekarri dizuet.

Eztularentzako pastilla kaxa ireki zuen.

–Arrano-pola! –oihukatuz, Pottolok–. Nondik atera duzu zigarrokin hori?

–Ezkutuko sarreran aurkitu dut –jakinarazi zien pozik Idoiak.

Eskubeltzekoak berehala hasi ziren zigarrokina ikertzen.

–Marka garestiren bat izango da –esan zuen Felixek–. Egun seinalatuetan bakarrik erretzen ditu gure aitak urrezko eraztuna duten puruak.

–*Don Carlos* erretzen al du hark ere? –galdetu zion Kiki k.-ek.

–Ez. Zergatik?

–X jaunak puruak non erosi dituen jakin behar dugulako.

Arratsalde osoa pasa zuen Eskubeltz taldeak *Don Carlos* saltzen zuten denda aurkitu nahirik. Baina alferrik. Hurrengo goizean ere, jolas-ordurik luzeenean, inguruak miatzen aritu ziren, begiak erne zituztela. Pottolok, irakasleen gelako leihotik Schmidt irakasleak botatako zigarrokina ere ikertu zuen. Batbatean Felixen turutaren hotsa entzun zen. Eta Eskubeltzekoak bere inguruan bildu zirenean, hauxe esan zuen:

–Badakit non saltzen dituzten *Don Carlosak*.

☐ *Non saltzen zituzten* Don Carlos *puruak?*






LIVEWORKSHEETS